BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3764

158/2011 DEKRETUA, uztailaren 12koa, «Itxaropena» Ikusmen Urriko Pertsonen Arabako Elkartea herritarrentzat onuragarria dela aitortzeko dena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikuluak honela dio: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Lege horren babesean, «Itxaropena» Ikusmen Urriko Pertsonen Arabako Elkarteak aitormen hori eman dakiola eskatu du, bere ustez erakunde onuragarria dela aitortzea merezi duelako, gizarte-esklusioaren aurka egiten duen lanagatik.

Eskabidea egiten duen elkartea 1980an eratu zen, eta Arabako gobernadore zibilaren 1981eko martxoaren 31ko Ebazpenaz inskribatu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatua dago, AS.R.P.A.00379 erregistro-zenbakiarekin.

Elkarteak batik bat Arabako Lurralde Historikoaren eremuan garatzen ditu bere jarduerak.

Eratu zenetik, «Itxaropena» Ikusmen Urriko Pertsonen Arabako Elkarteak behar diren ekintzak egiten ditu bere helburu nagusia betetzeko, alegia ikusmen-desgaitasun larria duten pertsonak eremu guztietan integra daitezen lan egitea.

Gizarteak, benetan interes orokorrekotzat jotzen ditu jarduera horiek guztiak.

7/2007 Legearen 45.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, herri-onurako aitorpena Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitako dekretu baten bidez egingo da. Dekretu-proposamena kasuan kasuko sailek -gaiaren arabera- eta, betiere, justiziaren arloan eskuduna den sailak egingo dute, eta azken sail horrek izapidetuko ditu bai prozedura, bai bertan sor daitezkeen auzi guztiak. Agindu hori betetzearren, beharrezko espedientea izapidetu da, zeini erantsi baitzaizkio sailak eta hala eskatu zaien erakundeek egindako txostenak.

Ondorioz, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eta Osasun eta Kontsumoko sailburuak proposaturik, entitate eta erakunde interesatuek aurkeztutako txostenak ikusita, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko uztailaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– «Itxaropena» Ikusmen Urriko Pertsonen Arabako Elkartea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean AS.R.P.A.00379 zenbakiarekin inskribatuta dagoena, herritarrentzat onuragarria dela aitortzea, bere jardueraren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste baita.

Horrekin batera, deklarazio horri dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2002 Legeko 43. artikuluan jasota daudenak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 12an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.